

Errusiar diskoteka

Wladimir Kaminer

MARIA JOSE KEREJETAK *itzulia*



PASAZAITE
INPORTAZIOKO LIBURUAK

Jatorriko izenburua:
Russendisko

© Wladimir Kaminer, 2000

© itzulpen honena, 2014, Maria Jose Kerejeta

Zuzenketa: Larraitz Garmendia Munduate

© argitalpen honena, 2014, Pasazaite liburuak

Harrobieta enparantza 12
20017 Donostia - Gipuzkoa
www.pasazaite.com
liburuak@pasazaite.com

Maketazioa: Astidiseinua
Sailaren diseinua: La Personnalité

ISBN: 978-84-940331-7-9
Legezko gordailua: SS-1214-2014

Inprimatzailea: Leitzaran grafikak, S.L. Martin Ugalde Kultur Parkea. Andoain-Gipuzkoa

Errusiarrak Berlinen

1990eko udan zurrumurru bat zabaldu zen Moskun: Honecker-ek Sobietar Batasuneko juduei ateak zabaltzen zizkien, Alemaniako Errepublika Demokratikoak Israelen aldeko alemanen ordainketetan parte hartu ez izanaren ordainez. Ekialdeko Alemaniako propaganda ofizialaren arabera, nazi ohi guztiak mendebaldeko aldean bizi ziren. Astero, beren inportazio-espazio negozioak egiteko, Moskuren eta Ekialdeko Alemaniaren arteko joan-etorria egiten zuten salerosle ugariak ekarri zuten berria hirira. Berehala zabaldu zen bazter guztietara, guztiak jakinaren gainean zeuden, Honecker bera izan ezik agian. Oro har, arbaso juduak eduki izana ezkututzen ahalegintzen ziren herritar gehienak Sobietar Batasunean, dossier garbirik izan ezean ez baitzegoen karrera egitea amesterik ere. Horren arrazoia ez zen antisemitismoa, baizik eta, besterik gabe, postu guztiak, erantzukizun handikoak nahiz txikikoak izan, Alderdi Komunistaren afiliatu izatearekin lotuta zeudela. Eta juduak ez zituzten oso gogoko Alderdian. Sobietar herri osoa pauso berean zihoan, soldaduak Plaza Gorrian bezala, laneko garaipen batetik hurrengora, inork ezin zuen arrastotik irten. Inor hori judua ez izatera, behintzat. Judua izanez gero Israelera emigra zitekeen, teoriarik behintzat. Judu batek hori egitea —ia— ondo ikusia zegoen. Hala ere, Alderdiko kide batek atzerrira bidaiatzeko baimena

eskatzen zuenean, bere unitateko gainerako komunistak ez ziren oso egoera onean geratzen.

Nire aitak, esate baterako, lau aldiz aurkeztu zuen Alderdiko kide izateko hautagaitza, eta porrot egin zuen guztietan. Hamar urte zeramatzan enpresa txiki bateko plangintza sailaren buruorde gisa lanean, eta egun batean sailaren buru izatea zen bere ametsa. Orduan, beste 35 errublo irabaziko zituen lehengoaz gainera. Baina zuzendariari bere amesgaiztoetan baizik ez zitzaion gogoratuko Alderdiko kide ez zen plangintza sailaren buru bat. Gainera, ezinezkoa zen, hilero bere lanaren berri eman behar baitzuen tokiko komitearen bileran. Nola sartuko zen, izan ere, kide-txartelik gabe bilera hartan? Hala ere, urtero-urtero saiatzen zen aita Alderdian sartzen. Litroka edaten zuen vodka aktibistekin batera, izerdi-koipetan egon ohi zen haiekin sauna barruan, baina dena alferrik. Urtero, bere asmoak eragozpen berberarekin topo egiten zuen:

—Asko estimatzen zaitugu, Viktor, beti izango zara gure adiskide mina —zioten militanteek—. Eta Alderdian onartu nahi zintuzkegu. Baina badakizu, judua zara, eta noiznahi ospa egin eta Israelera joan zaitezke.

—Nik ez dut, ordea, horrelakorik inoiz egingo —erantzuten zien aitak.

—Ez horixe, zuk inoiz ez duzu ospa egingo, hori bada-kigu; baina, teoria hutsetik begiratuta, litekeena da, ezta? Pentsa, zer-nolako ergel itxuran geratuko ginatkeen gu!

Eta horrela, aita hautagai geratu zen betiko.

Garai berriak iritsi ziren: mundu zabalera irteteko iga-robaimena. Hasiera berri horretarako gonbidapena izateko baldintza bakarra zera zen, judua izatea. Lehen, beren pasaporteetatik *judu* hitza ezabatzeko militarrei dirua

ematen zieten juduek; dirua ordaintzen hasi ziren orduan, kontrakoa egiteagatik. Bat-batean, enpresa guztiek nahi zuten zuzendari judu bat, hark baizik ezin zituen mundu osoan barrena negoziok egin. Behingoan, nazionalitate bateko eta besteko jende askok nahi zuen judu egin eta Amerikara, Kanadara edota Austriara emigratu. Gerorago, eta halako isilpeko informazio-usainez, iritsi zen Ekialdeko Alemaniara joatearena.

Nik adiskide baten osabari entzun nion lehendabiziko aldiz kontu hori aipatzen. Mendebaldeko Berlineko fotokopiagailuekin aritzen zen tratuan. Behin etxera joan gintzaizkion bisita egitera; handik gutxira familia osoa Los Angelesera mugitzekoa baitzen, etxea hutsik zegoen erabat. Gelaren erdian, lurraren gainean zegoen telebista bideodun handi garesti bat, besterik ez zen etxean geratzen. Osaba, lastaira baten gainean etzanda, pelikula pornoak ikusten ari zen.

—Ekialdeko Berlinen Honeckerrek juduak hartzen ditu. Beranduegi da niretzat norabidez aldatzeko, dagoeneko nire milioi guztiak Amerikara bidaliak ditut —esan zigun—. Zuek, ordea, gazteak zarete, ezer ez duzue, Alemania da zuentzat egokiena; han alderraia besterik ez dago eta gizarte-sistema egonkor bat dute. Beste gazte-pare batek ez du atentzio handirik emango.

Bat-bateko erabakia izan zen. Gainera, askoz errazagoa zen Alemania aldera emigratzea Amerikara baino: txartelak 96 errublo balio zituen, eta Ekialdeko Berlinerako ez zen bisarik behar. Nire adiskide Mistxa eta biok 1990eko udan iritsi ginen Lichtenberg tren-geltokira. Garai hartan, harrera nahiko era demokratikoan egiten zen oraindik. Jaiotza-agiriari esker, non argi eta garbi agertzen baitzen

idatzirik bion gurasoak juduak zirela, sinestamendu bat eman ziguten horretarako propio sortutako Mendebaldeko Berlineko Marienfelde kaleko bulego batean. Dokumentu hark zioen judutar jatorriko herritartzat ezagutzen gintuztela orduan Alemanian. Sinestamendu horrekin Ekialdeko Berlineko poliziaren buruzagitzara jo genuen, Alexanderplatz-en, eta han judu aitortuak ginela zioen Ekialdeko Alemaniako nortasun-agiri bat eman ziguten. Marienfelden eta Berlin Mitt-eko poliziaren buruzagitzan, gure egoera berean zegoen errusiar mordoa ezagutu genuen. Bosgarren emigrazio-uholdearen abangoardia.

Lehen uholdea Guardia Zuriarena izan zen, iraultzaren eta gerra zibilaren garaian; bigarren uholdeak 1941 eta 1945 bitartean emigratu zuen; hirugarrena hirurogeietako disidente deserrituek osatu zuten; eta laugarren uholdea hirurogeita hamarretan Vienan gaindi emigratu zuten juduekin hasi zen. Laurogeita hamarren hasierako bosgarren uholdeko juduak ez ziren gainerako biztanleengandik beren sinesmenagatik edo itxuragatik bereizten. Kristauak, musulmanak edota are ateoak izan zitezkeen, horailak, ile-gorriak edota beltzaranak, sudur-harroak nahiz sudurkakotuak. Beren agirien arabera juduak zirela, huraxe zuten bereizgarri bakarra. Nahikoa zen familiako bat judua izatea, edota judu erdia, eta are judu laurdena, eta Marienfelden frogatu ahal izatea.

Eta edozein zorizko jokotan bezala, hemen ere engainu asko zegoen. Lehendabiziko ehun laguneren artean, era guztietako jendea elkartu zen: Ukrainako kirurgialari bat emaztearekin eta hiru alabarekin, Vilniuseko ehorztetxe baten jabea, unibertsitateko irakasle zahar bat —errusiar Sputniken metalezko geruzaren kalkuluak egin zituen eta